

# Sir Isaac Newtonen konfinamendua



MAIALEN BERASATEGI CATALÁN  
ITZULTZAILEA



PAULA ESTÉVEZ

Denok ez ginen jaio Sir Isaac Newton izateko. Izurri latz baten ondorioz, Cambridgeko Unibertsitatea itxi eta etxera bidali behar izan omen zituzten Newton eta haren kideak 1665. urte inguruan, eta halabeharrezko etxealdi hartan ikusi omen zituen Isaac gazteak, amaren baratzean, sagar helduak arbolatik erortzen, konk, konk. Badakigu, gutxi-asko, zer gertatu zen gero. Istorio horretatik segitzen da, beraz, Newton jauna ez zela izan alferrontzi bat, eta ezin hobeto aprobetxatu zuela konfinamendua. (Itxialdiko ustezko denbora libre ugariagoan eta etxearen ustezko goxotasunean hamazazpi liburu irakurri, Interneteko tutorialen bidez *superfit* jarri eta mundua aldatuko duen teoria zientifikoren bat garatu ez duten guztiei: atsekabea lagun.)

William Bynum zientzia-historialariak Newtonen pasadizo agian alegiazko hori kontatzen du EHUren ZIO bildumako *Zientziaren historia txiki bat* liburu atsegina eta jakingarria (Juan Garziak beti bezain dotore ondua da euskarazko itzulpena). Hainbat zientzialari, behar bezain zuhur, “Ezer ez dakidala baizik ez dakit” esan eta esan ari zaizkigun honetan, eta hainbat zientzia-dibulgatzaile,

“jakintsuagotzen gaituen zalantza orokorraren baitan”, zomorro malapartatuaren berri al bait ulergarrien ematen ari zaizkigun honetan, badirudi aditu dudagabe bihurtu garela denok, kontrakarrean: nork ez dauka, bada, bere teoria koxkorra izurriaren hasieraz, maskarak egoki erabiltzeaz (are, euskaraz maskara esateko hitz egokiaz), hurrengo birus-oldeaz, gizartearen patuaz...?

Informazioa eta jakintza oso ondo bereizten ez dituen gizarte batean bizi gara; baina zalantza gaitzesten duen gizarte batean ere (oso kontu maskulinoa hori, derradan bidenabar). Eta argitasun itxurako nahasmen hori guztia finegi diseinatuta dago, bikainegi funtzionatzen du kasualitate izateko. Azkenaldian, esaldi bat etortzen zait maiz gogora, batzuen ustez Newtonek esana dena eta beste batzuen ustez ez: “Urrunago iritsi bada nire ikuspegia, erraldoi batzuen sorbalda gainean jarrita egoteari zor zaio hori”. Bada, nik ez dakit nora garamatzen gure oraingo erraldoi mozkor honek sorbalda gainean, baina horrenbeste leiho eta horrenbeste zulo eta horrenbeste ostertz erakusten dizkigu aldi berean, azkenerako susmo sorra pitzen baina ez ote garen ari gehiago miopetzen

eta motzagozten, jakintsuagotzen baino.

Esaldi ospetsuaren jatorrizko zentzuan, norbere aurretik bidea urratu dutenak dira noski erraldoi horiek: beren jakintza gerorainotu duten arbasoak. Orainaren eta egunerokoaren istingana hankak zeharo lokaztuta, ordea, ez gara askorik jabetzen gu ere erraldoiak izango garela ondorengoentzat, sorbalda gainean eramango ditugula noizbait, auskalo nondik, auskalo nora: eta izan gaitzetzeko erraldoi sendo eskuzabalak, baina izan gaitzetzeko erraldoi baldar buruzaleak ere. Ahaztu gabe, jakina (salba gaitzatela “Denon artean lortuko dugu” esaldi ospetsuaren erabilera tranpatitiko), denok ez dugula botere bera erraldoi horren jitean eta jitoan eragiteko.

“Lehengoa berreskuratu”, “aurrekora itzuli”: maskaren azpitik etengabe aditzen diren desideratum-ak. Baina ez gara normaltasunera itzuliko, ez: normaltasunean gaude eta. Desjabetuak desjabetuago, eriak eriago, hilak hilik. Dena normal. Harri-puska mardul bat baina normaltasuna, bere hartan irauteko prestatua. Eta Newtonen 1. Legeak zera dio: “Gorputz oro edo egonean dago edo uniformeki mugitzen da ez badu beste zerbaitek haren gain eragiten”. ●